

EDIZIOA I.EDIZIOA I.EDIZIOA I.EDIZIOA I.EDIZIOA I.EDIZIOA

BAAL
DUE
DEA
ONBAT?

*guraso
elkarteen jarduera
onen lehiaketa*

ehige
gurasoen elkartea

SA RRE RA

Aspaldiko amets bat bete genuen pasa den ikasturtean: Guraso Elkartean hezkuntza-jarduera onen lehiaketa bat antolatzea. Erantzuna ikusirik ez da azkena izango.

29 Guraso Elkarte aurkeztu ziren aurreneko edizio honetara eta denetariko lanak ezagutzeko aukera izan zuen epaimahaiak. Ez da erraza izan aukeraketa baina aurretik finkatutako irizpide batzuk kontuan hartuz, hiru sari eta lau aipamen berezi eman zituen.

Ekainaren 5ean Bilbon ospatu genuen Euskal Eskola Publikoaren 20. Jaian banatu genituen sariak eta oraingo honetan lan guzti hori ezagutarazteko momentua iritsi zaigu. Esku artean duzue.

Zorionak irabazleei, mila esker parte hartu duzuen guztioi eta egin ez duzuenoi, adi bigarren edizioari.

Ana Puente
EHIGEko presidentea

EDIZIOA: 1. 2011KO AZAROA
ALE-KOPURUA: 1.500
ARGITARATZAILEA: EHIGE
INPRIMATZAILEA: GRAFINORTE
L.G: BI-2904-2011
DISEINUA: XABAT AGIRRE
WWW.EHIGE.ORG/PRAKTIKAONAK

BABESLEA:



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

IRIZPIDE AK/ EPAIMA HAIA

IRIZPIDEAK

- Proiektuaren originaltasuna
- Guraso Elkartearen ekimena proiektuaren diseinuan eta burutzean
 - IGEaren parte-hartze maila prozesu osoan
 - Bilatzen diren helburuen garrantzia
 - Helburuen betetze maila
 - Koordinazio maila ikastetxearekin
- Inguruko beste eragileen parte-hartzea (erakundeak, elkarteak...)
 - Beste ikastetxeetara orokortzeko erraztasuna
- Proiektuaren jarraikortasuna ikastetxean bertan
 - Memoriaren aurkezpena
- Gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren sustapena
 - Euskararen sustapena
 - Ikuspegi kultur anitza
 - Ikuspegi inklusiboa
- Ebaluaketa kontuan hartzen den

EPAIMAHAI

Garbiñe Arrizabalaga, Baikarako prestakuntza arduraduna
Ana Eizagirre, BIGEko aholkularia
Juan Carlos Alonso, Denon Eskolako zuzendaritza batzordeko kidea
Jon López Armendáriz, Berritzegune Nagusiko zuzendaria

AUR KIBID EA

LEHEN SARIA {1. ORRIA}

BATERA GURASO ELKARTEA (Kurtzebarri BHI, Aretxabaleta)
“Bidai ideien lehiaketa eta institutuko ikasle guztientzako ikas bidaia”

BIGARREN SARIA {9. ORRIA}

JUAN DELMÁS GURASO ELKARTEA (Juan Delmás LHI, Bilbo)
“Abusu sarean / Toma un libro”

HIRUGARREN SARIA {15. ORRIA}

KUTTUN ZEBA GURASO ELKARTEA (Olaberria LHI, Olaberria)
“Olaberriko istorioak gure helduen eskutik”

AIPAMEN BEREZIA {19. ORRIA}

ZURBARANTARRAK GURASO ELKARTEA (Zurbaran LHI, Bilbo)
“Eskola bat trantsizioan”

AIPAMEN BEREZIA {25. ORRIA}

ZUBI GURASO ELKARTEA (Luzaro LHI, Deba)
“Zubi Txiki Eguna”

AIPAMEN BEREZIA {31. ORRIA}

OXINBIRIBIL GURASO ELKARTEA (Dunboa LHI, Irun)
“Blog baten sortze-lanaren egunkaria”

AIPAMEN BEREZIA {35. ORRIA}

CERVANTES GURASO ELKARTEA (Cervantes LHI, Bilbo)
“Berri berriak aldizkaria”

LEHEN SARIA

“BIDAI IDEIEN LEHIAKETA ETA INSTITUTUKO IKASLE GUZTIENTZAKO IKASBIDAIA”

BATERA GURASO ELKARTEA
(Kurtzebarri BHI, Aretxabaleta)

Kurtzebarri BHIko BATERA Guraso Elkartek Bidai Ideien Lehiaketa bat antolatzen du 2009-2010 ikasturtez gero; ondoren, institutuko ikasleek proposatutako bidai irabazlea antolatu. DBHko ikasle guztiei zuzenduta dago lehiaketa, eta bidaia eta ikasleen partehartzea eta inplikazioa bultzatzea da bere helburu nagusia.

JARDUERAREN LABURPENA

1. JARDUERAREN DESKRIBAPENA

Kurtzebarri BHiko BATERA Guraso Elkar-teak Bidai Ideien Lehiaketa bat antola-tzen du 2009-2010 ikasturtez gero; on-doren, institutuko ikasleek proposatu-tako bidai irabazlea antolatu. DBHko ikasle guztiei zuzenduta daude lehiaketa eta bidaia. Jarraian aurkezten da egitas-moaren nondik norakoa.

1.1. IDEIAREN JATORRIA

Kurtzebarri BHiko BATERA Guraso Elka-teak urtero antolatu ohi du ikastetxeko ikasle guztientzat ikas bidai bat. Ikastetxe txikia izanik, Guraso Elkar-teak egiteko moduko jarduera bat da, ikasle-

go osoari zuzenduta, gure seme-alabek DBHko kurtso guztietan ikas bidai batez goza ahal dezaten. Hainbat urtetan es-kiazera joan gara eta oso esperientzia polita izan da, ikasle gehienei asko gus-tatzen zaiena. Hala ere, urtetako inertzia hori eteteko asmoz, batez ere ikasleen partehartzea eta inplikazioa bultzatu al-dera, eta lehertu berriko krisialdi ekono-mikoan murgilduta hainbat familien-tzako eskiatzeko irteera garestia suerta-tuko zela ohartuta, iaz beste bide bati ekin genion: Bidai Ideien Lehiaketaren bidez bidai alternatiboak jorratu.

1.2. LEHENENGO ESPERIENTZIA

Lehiaketaren oinarriak eratu, deialdia egin eta 2009-2010eko ikasturtean es

treinatu zen esperientzia: 3 bidai propo-samen aurkeztu zituzten 9 ikaslez osatu-tako hiru taldeen artean. Partaideak DBH 1go, 2garren eta 4garren kurtsotakoak izan ziren. Epaimahaiak lanak aztertu, eta alde zurretik zehaztutako irizpideak jarraituta, DBH 1.go mailako taldeak aur-keztutako Sellako Jeitsiera izan zen lehiaketako bidai irabazlea. Bidaia 2010eko apirilaren 23-24-25 aste buruan burutu zen, eta 23 ikasle eta BATERA Gu-raso Elkarteko 5 kide joan ziren. Talde ira-bazleko kideei BATERAK ordaindu die bi-daia. Lehiaketaren lehenengo edizioa eta eginiko bidaia oso positiboki baloratu zuen BATERAK, eta bide horretatik jarrai-tzeko asmoz, 2010-2011 ikasturtean II BI-DAI IDEIEN LEHIAKETA deitu du, ikasleek landutako bidai proposamenen artean bat aukeratzeko eta gauzatzeko. Propo-samenak berriak izan daitezke edo es-kiatzen joaten jarraitzekoak, beti ere lehiaketaren oinarriak jarraituta.

1.3. LEHIAKETAREN BIGARREN EDI-ZIOA

Bigarren edizio honen deialdia 2010eko irailaren bukaeran egin zen, eta aza-roaren 12ra arte luzatu zen lanak aurkez-teko epea. Zazpi taldek parte hartu dute, DBHko 2garren, 3garren eta 4garren mail-etakoak. Bidai irabazlea Asturiaseko Sali-nas herrira surf egitera joatekoa suertatu da, eta hauei ere BATERAK bidaia ordain-duko die. Horretaz gain, aurtengoan BA-TERAK partaide guztiei eman nahi izan die sariren bat, partehartzea txalotzeko eta bultzatzeko intentzioarekin. Sari xu-

meena, herriko zinerako sarrerak, hurren-go kategorian, liburu eta diska dendako bono-opariak, eta azkenik, lehiaketako talde irabazlearen saria, bidaia bera opa-ri. Sariak banatzeko ekitalditxo bat anto-latu zen eskolan, eta talde lehiakide guztiei banatu zitzaizen sobre bana euren lanari zegokion epaiarekin, haren zerga-tiaren azalpen labur bat, eta BATERAK emandako sariaz.

Momentu honetan bidai irabazlea anto-latzen saiatzen ari da BATERA Guraso Elkartea. Azaldu behar da ere BATERAK diru ekarpen bat egiten duela bidaiaren antolaketan, guztizko kostearen %20 gu-txi gora behera, ikasleek egin beharreko ekarpena zertxobait merketze aldera.

“Asturiaseko Salinas herrira surf egitera joatea suertatu da irabazle”

2. EGITASMOAREN HELBURUAK

2.1. IKASLEEN SEN PARTEHARTZAI-LEA BULTZATZEA

Jardun kolektiboan gizabanakoen parte-hartzea gizarte demokratikoen balio ga-rrantzitsuenetako bat da. Ekimen honen bitartez gure seme-alabei partehartzea-ren praktikan ohitzen joateko ariketa jos-tagarri bat parean jartzen diegula uste dugu.



“Ekintzen antolaketan inplikatu nahi ditugu ikasleak”

2.2. IKASLEAK EKINTZEN ANTOLAKETAN INPLIKATZEA

Ekimen honek aukera ematen die ikasleei eurentzat antolatuko den ekintza bat, bidaia kasu honetan, nolakoa nahi duten izatea adierazteko. Adin hauetan, burutuko den ekintza batean euren interesak, gogoak, preferentziak kontuan hartuko direla jakiteak, beti be proposamenak koherentzia badu, erantzukizun gehiagoz jokatzeko lagunduko diela uste dugu.

2.3. IKASLEEK PROIEKTU BATEN FASE GUZTIAK JORRATZEA

Ideiaaren burutaziotik abiatu, eduki ludiko kulturala eman, atal logistikoa lotu, aurrerontua prestatu... Proiektu baten osagarri guztiak lantzeko aukera ematen diela uste dugu.

2.4. IKASLEAK EKINTZEN KOSTE EKONOMIKOTAZ JABETZEA

Txikitatik guztia eskura eman diegu gure seme alabei; gerora ohartzen gara ez daukatela gauzen balioaren senik. Lehiaketa honek gehienezko kostearen azpitik mugatzera behartzen ditu, eta hori ekonomizatzeko ariketa hezitzailea izan daitekeela uste dugu.

3. ORAIN ARTE EGINDAKOAREN BALORAZIOA

Bidai ideiaen lehiaketa eta ikasbidaiaren antolaketa izango dira BATERA Guraso Elkarteak antolatzen dituen ekintzen artean esfortzu gehien eskatzen dutenak. Hala ere, hasitako bide honetan jarraitzeko gogo sendoa daukagu, orain arte egindakoak emaitza onak eman dizkigulako: partehartzea handitzen joan da, jaso diren ideiak oso interesgarriak izan dira, egindako bidaia oso ondo joan zen (gazteak pozik eta lasai ibili ziren aste buru batez naturaz gozatzen, gehienontzako berria zen kirol bat praktikatzeko -piraguismoa-, Cangas de Onís ezagutzen...), eta akaso gratifikanteena, satisfazio izpitxo bat ikustea iruditu zaigu proiektuan parte hartu duten ikasleetan.

BAIKARA federazioak antolatutako “Guraso Elkartearen jardueraren onen lehiaketa” honek aukera ematen digu beste guraso elkarte batzuekin konpartitzeko gure ekimena. Lana eskatzen du, baina merezi du, eta BATERAn prest gaude gure esperientziaren xehetasunak interesgarritzat jotzen duten beste guraso elkarteekin konpartitzeko.

LANA BALORATZEKO SISTEMA: PROPOSAMENA

1. IDENTIFIKAZIOKO SOBREEI ETA LANEN ORRIEI ZENBAKIA JARRI. FOTOKOPIATU.

2. LEHENENGO FILTROA: EGOKITASUN FORMALA.

Lanak aztertu: Konprobatu eskatutako formatorik egokitzeko diren. Informazio atal guztiak landu dituzten.

Osorik ez daudenak, printzipioz, baztertu.

3. BIGARREN FILTROA: PROPOSAMENAREN FIDAGARRITASUNA

Osorik dauden lanak gure artean banatu eta konprobatu benetako datuak diren:

bertara deitu, web orriak aztertu, prezioak, jarduerak, disponibilitatea...

4. HIRUGARREN FILTROA: PROPOSAMENAREN EGOKITASUNA

Baterako batzordeak aztertuko ditu lanak, eta edukiaren egokitasunean oinarrituta aukeratuko ditu lehiaketan aurrera jarraituko duten lanak. Kontuan hartuko dira:

- Ekintzen edukiera bera: jarduerak aktiboak, eraikitzaileak, jasangarriak, osasungarriak,...

- Antolaketaren zailtasuna: Batak bere gain hartu dezakeen antolaketa den...

Batak, beharrezkoa iritzi gero, filtratutako lanen kopiak banatuko dizkie ikasle eta irakasleen batzordeei, euren iritzia eman dezaten. Batak kontuan hartuko ditu iritzi hauek azken balorazioa egitekoan, baina erabakia hartzea beregain egongo da.

5. LANEN PUNTUAKETA

Lehiaketaren oinarrietan jasotako irizpideak erabilia, ondoko baremazioa egingo da:

- Aktibitateen aberastasuna eta originaltasuna (10 puntu)



- Gertutasun geografikoa (5 puntu: zenbat eta gertuago puntu gehiago) (puntuaketa erlatiboa: gertuenak 5 puntu... konparazioz atera beharko da)
 - Pertsonako prezioa (5 puntu) (140€ puntu bat; 130€ 2 puntu...)
 - Proposamenaren koherentzia (5 puntu)
 - Lehiakideen adina (lehenengo mailakoek 4 puntu, bigarren mailakoek 3 puntu, hirugarrenekoek 2 puntu eta laugarrenekoek 1)
- Taldea den kasuan, partaide bakoitzaren

puntuazioaren batz-bestekoa egingo da.

- Proiektuaren presentazioaren txukuntasuna (5 puntu)
- Gehienez 34 puntu eta gutxienez 20 puntu lortu beharko dute finalistak izateko.

6. EMAITZEN KOMUNIKAZIOA

Lehiaketaren emaitza, ahal dela, BATERAko Batzar Orokorrean jakinaraziko da. Jarraian, irabazle suertatzen den proiektuaren egileari edo egile taldeari jakin-

araziko zaio. Era berean jakitera emango dira finalista izatera iritsi diren beste proiektuak. Proiektu irabazlea eta proiektu finalistak eskolako web orrian argitaratuko dira.

7. BIDAIA ANTOLATZEA

Batera Guraso Elkarte arduratuko da bidaiaren antolaketaz. Nahikoa jende apuntatuko ez balitz irteera egiteko (25 pertsona gutxi gora behera) edo beste arrazoiren batengatik bidaia bertan behera geratuko balitz, Baterak bidaiaren

pertsonako kostearen balioko diru saria emango dio irabazleari.

PROPOSAMEN BERRIA

Parte-hartzea bultzatzearen hurrengo ediziotan, finalista guztiei sari bana eman ahal zaie: Kultur bonoak Arkupen erabiltzeko (zine sarrerak, kontzertuak...) adibidez.

Lana epe barruan aurkeztu dutenei, aipamen berezia eta txukuntasun saria: Elkar dendako kultur bono bana, adibidez.

DIUA IDEIA

INFORMAZIO GEHIAGO/ GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO:

012945aa@hezkuntza.net



BIGARREN SARIA

“TOMA UN LIBRO / ABUSU SAREAN”

JUAN DELMÁS-IBAIZABAL GURASO
ELKARTEA
(Juan Delmás LHI, Bilbo)

Abusu Sarean askotariko herri elkarteek (auzoetakoak, gazteenak, emakumeenak, hirugarren adinekoenak, kultur edo kultura arlokoak...), hezkuntza arloko erakundeek (kaleko hezitzaileenak, familia arlokoak...) eta hezkuntza komunitateek (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Institutua, Zamakolako Lehen Hezkuntzako Ikastetxea, Abusu Ikastola, haur eskola, Juan Delmás ikastetxeko guraso elkarte...) elkarlanean aurrera eramaten duten sareko lana da, enpresa eta merkataritza arloko erakundeen laguntza eta konpromisoa ere baduena.

■ Gure eskolak hemezortzi urte zera-matzen jada elkarbizitzarekin lotutako hainbat arlo jorratzen. Urte horietako lanari esker, “Bizi gaitezen elkarrekin” izeneko proiektu global bat sortzen joan ginen pixkanaka ikastetxearen inguruan, hezkuntza komunitate osoaren parte hartzea zuena: ikasleak, irakasleak, jangeletako langileak eta familiak.

Hasitako ibilbidearen une batean, baina, familiez gain Abusuko auzo guzti-guztia kontuan hartuko zuen egitasmo bat abian jarri beharra genuela ikusi genuen. Horretarako, orain dela zazpi urte, ikastetxeak auzoko hezkuntza eta kultura arloko elkarte guztiei deialdia egin zien “Auzo oso bat beharrezkoa da haur bat hezteko” lelopean. Bertaratutakoei gure egitasmoak, helburuak, lan ildoak... azaldu eta beraien parte-hartzea eskatu genien. Hurrengo ikasturtean, Ibaizabal Bigarren Hezkuntzako Institutua ere sartu zen lantaldean. Urtetik urtera proiektuak aurrera eramaten jarraitu genuen, 2007-2008 ikasturtean ikastetxeek eta elkar-teeek osatutako taldea are eta gehiago zabaltea eta lan ildo egonkor bat sortzea erabaki arte; horrela sortu genuen **Abusu Sarean**.

Abusu Sarean askotariko herri elkarteek (auzoetakoak, gazteenak, emakumeenak, hirugarren adinekoenak, kultur edo kultura arlokoak...), hezkuntza arloko erakundeek (kaleko hezitzaileenak, familia arlokoak...) eta hezkuntza komunitateek (Derrigorrezko Bigarren Hezkun-

tzako Institutua, Zamakolako Lehen Hezkuntzako Ikastetxea, Abusu Ikastola, haur eskola, Juan Delmás ikastetxeko guraso elkarte...) elkarlanean aurrera eramaten dugun sareko lana da, enpresa eta merkataritza arloko erakundeen laguntza eta konpromisoa ere baduena. Gure helbururik behinena ikastetxea inguratzen duen gizarte ingurunea gure haur eta gazteen heziketan hezkide bihurtzea da; hau da, eskolaz eta familiaz gain, auzoak berak haur eta gazteen hezkuntzan parte hartzea. Izan ere, ondo baino hobeto dakigu balioetan hezteko modurik onena etsenplu ematea dela.

“Abusu haurrentzako liburutegi erraldoia bihurtu dugu”

ABUSU, HEZTEN DUEN AUZOA

“Abusu, hezten duen auzoa” lelopean, auzo guztia ikastetxeek elkarbizitza planetan lantzen dituzten baloreak zabaltzeko ahaleginean inplikatzeko lortu nahi da; hau da, gatazkak elkarriketaren bidez konpontzea, ezberdintasunak errespetatzea, gizarte interkulturalaren aldeko hezkuntza bultzatzea...

Jose Antonio Marinak dioen bezala, laguntzeko prest dauden ehunka pertsonen kezka, eskuzabaltasuna, energia eta talentua baliatu nahi ditugu gure

haur eta gazteak pertsona on eta zorionsuak izateko baldintza onenetan jartzeko.

Auzotar guztien inplikazioa lortu nahi dugu Abusu demokratikoagoa, solidarioagoa, konprometituagoa, partehartzaileagoa, zainduagoa, atseginagoa, zorionsuagoa izan dadin lortzeko; hau da, auzoko elkarbizitza hobetzeko.

AUZO IRAKURLEA

Programa honekin auzotarren artean irakurzaletasuna bultzatu nahi dugu, ondo baino hobeto baitakigu irakurtzeak norbanakoen zein gizataldeen artean kultura hedatzeko duen garrantzia.

Programaren baitan, honako jarduerak eramaten ditugu aurrera:

1. Literatur solasaldiak.
2. Haurrentzako gomendatutako liburuen bilketak, adin tarteka.
3. Ametsen eskorga.
4. Book crossing-a.
5. Kultur guztietako ipuinen maratokia.
6. Liburu azoka.
7. Liburu trukea.
8. Irakurzaletasuna bultzatzeko kanpainak egitea auzotarren argazkiak dituzten kartelak erabilita. Artikulu honetan, honakoa garatzen da:

“HAR EZAZU LIBURU BAT” KANPAINA”

Kanpaina honekin auzo guztiaren inplikazioa lortu nahi dugu Abusuko haurrak irakurle onak izan daitezen. Gure



seme-alabei orainerako zein etorkizunera rako eskain diezaiekegun bagaje onena irakurzaletasuna dela ziur gaudelako egiten dugu, bai beraien hazkunde pertsonalerako, bai beraien etorkizun profesionalerako, bai beraien bizitza guztian zehar inoren laguntzarik gabe ikasten jarraitzeko gai izan daitezen. Irakurle trebeak hezteko gai baldin bagara, bizitza autonomoagoa, munduari irekiagoa eta aldaketetarako prestatuagoa izateko laguntza emango diegu gure haurrei.

Familien eta merkatarien laguntzarekin, askoz errazagoa izango zaigu irakurketa eguneroko jarduera atsegina bilakatzea. Horregatik, auzoko 32 saltokitan haurrentzako 130 ipuin eta liburu inguru banatu ditugu, guztiak ezberdinak. Saltoki horiek erakusleihoan jarritako eranskailu batekin identifikatu ditugu. Haur bat, bakarrik edo heldu batekin, saltoki horietako batera heltzen denean, merkatariak liburu bat eskaintzen dio bere adina kontuan izanik; haurrak etxera eramanez dezake irakurtzeko, eta, ostean, denda berdinean itzuli behar du. Horrela, merkatariak liburu berdinak haur ugari eskaintzeko moduan da.

Liburu eta ipuinak kolore ezberdinetako eranskailuekin markatuta daude, betiere zein adineko haurrentzako aproposak diren kontuan izanik. Zirkulu gorria dutenak, 6 urte arteko haurrentzat dira egokiak; zirkulu berdea dutenak, 7 eta 9 urte bitartekoentzat; eta, zirkulu urdina dutenak, 9 eta 11 urte artekoentzat.

Kanpaina abenduaren amaieran jarri zen abian eta maiatza hasieran amaituko da. Lau hilabete horietan bi oporraldi daude: Gabonak eta Aste Santua. Hain zuzen ere, oporraldi horietan joan ohi dira maizago haurrak saltokietara beraien familiekin, eta, noski, orduan izaten dute irakurtzeko denbora gehien.



Ikastetxeen bitartez, familiei kanpainaren berri eman zaie, nola funtzionatzen duen eta zein helburu dituen zehaztuz.

Abusuko saltokiek auzoko haurrei zuzendutako hezkuntza kanpainekin elkarlanean aritzen diren hirugarren aldia da honakoa.

Lehendabizi, haurrek eskolatik kanpo ere adeitasunez jokatzea bultzatzen zuten

kanpaina batean parte hartu zuten; hala, saltokietan sartzen zirenean, "mesedez", "eskerrik asko", "barkatu"... bezalako formulak erabili behar zituzten.

Bi ikasturte geroago, Bide Lagunak egitasmoan parte hartzen hasi ziren; hau da, haurrek eskolara joateko erabiltzen dituzten bideak zehazten dituen proiektuan. Bertan, haurrek, adineko pertsonen laguntzarik gabe, ikaskideekin erabiltzen dituzten bideak zehazten dira. Eskolara joan-etorrian direla edo eguneko beste edozein momentutan arazoren bat izanez gero, haurrek beraien "denda lagunak" zeintzuk diren badakite, eta, hala, horietara joan daitezke laguntza eske.

"Har ezazu liburu bat" kanpaina honetan ere, auzoko merkatarien laguntza izan dute Abusuko haurrek. Hori dela eta, eskerrak eman nahi dizkiegu.

Saltokiek gure auzoa gizartiaritzen dute: auzotarren topaguneak dira; gure kaleak argitzen dituzte; haurrei laguntza ematen diete; gizarteratzea bultzatzeko toki ezin aproposagoak dira, harremanak sustatu eta auzotarren artean elkarbizitza bultzatzeko ezinbestekoak.

Abusu haurrentzako uneoro eskuragarri dagoen liburutegi erraldoia bihurtzea lortu dugu, baita heldu askok ere irakurzaletasunari heltzea; haurrentzako eza-gunak eta eredu diren helduak.

"Abusu Sarean askotariko elkarteek, hezkuntza arloko erakundeek eta hezkuntza komunitateek elkarlanean aurrera eramaten dugun sareko lana da"

INFORMAZIO GEHIAGO/ GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO:

ampacpjuandelmas@gmail.com



HIRUGARREN SARIA

“OLABERRIKO ISTORIOAK”

KUTTUN-ZEBA GURASO ELKARTEA
(Olaberria LHI, Olaberria)

“Olaberriko istorioak” proiektua jarri du martxan Olaberriko guraso elkarteak seme-alabei herriko historia, bitxikeria, kondairak eta abar ezagutarazteko asmoz. Kontakizun hauek ipuin moduan egitea erabaki dute eta haur guztiengana iristeko asmoz bi formatutan garatu dituzte: paper formatuan, karpeta batean bilduma moduan gordetzeko aukerarekin, eta DVD formatuan.

■ Kuttun Zeba Guraso Elkarteak gara, Olaberriko eskola txikiaren inguruan sortutako guraso elkarteak. Guraso Elkarteak, Olaberriko eskolan eta Olaberriko haur-eskolan matrikulatuta dauden haur guztien gurasoek osatzen dugu. Olaberria,



Gipuzkoako Goierri bailaran kokatuta da goen herri txiki bat da. Momentu honetan, eskolan 37 haur daude (HH-2tik LH-2ra arte) eta haur eskolan berriz 8.

Gure egiteko nagusia, gure haurrei eta haurren gurasoei, herrian bertan, herri handiagoetan bizi diren haurrek eta haurren gurasoek izan ditzaketen zerbitzu eta ekintza aukera berdina ematen saiatzea da. Hori horrela izanik, eskolaz kanpoko zenbait zerbitzu antolatzeaz gain (hizkuntza eskola, antzerki tailerra, zaintza zerbitzua, gurasoentzako hitzaldi eta prestakuntza jarduerak,...) hilero ekintza bat antolatzen dugu elkarteko kide nahiz herritarrei irekita. Guzti hau

antolatuko eta bideratzeko, guraso elkarteak kideak hilero biltzen gara.

Lerro hauen bitartez, Olaberriko Kuttun Zeba Guraso Elkarteak garatzen ari den "Olaberriko istorioak" proiektuaren berri

eman nahi dizuegu. Proiektu honen helburua gure herriko historia, bitxikeria, kondairak,... gure seme-alabei ezagutzera ematea da.

Gure seme-alabak adinez oso gazteak dira (zaharrenak LHko bigarren mailan daude) eta ondorioz, kontakizun hauek ipuin moduan egitea erabaki genuen. Erabaki honen ondoren hurrengo "keza" ipuinaren formatua izan da. Haur batzuk irakurtzen badakite, beste batzuk horretan ari dira eta beste batzuk berriz oraindik ez dakite. Gure helburua haur guztiak izanik, ipuinak bi formatutan garatzea erabaki genuen. Batetik paper formatuan, karpeta batean bilduma modu-


an gordetzeko aukerarekin eta beste batetik DVD formatuan.

Proiektu honi 2009-2010 ikasturtean eman genion hasiera "Olaberria Zeba zenekoa" ipuina garatuaz eta gure helburua ikasturtean ipuin bat garatzea da. Momentu honetan bigarren ipuina garatzen hasiak gara. Proiektu honen garapena ia osoa gurasoek gauzatzen dugu. Ia osoa ze marrazkiak eta ipuinaren inpresioa dira gauzatzen ez ditugun gauza bakarrak. Gidoia, diseinua, maketatzea, grabaketak, edizioa,... beste guztia guk egiten dugu.

Ipuina garatzearekin batera, bide ematen badu behintzat, ipuinean aipatzen diren zenbait tokietara irteerak egiten ditugu ipuina bera fisikoki kokatu eta herria bera ezagutzeko helburuarekin.

Proiektu hau aurrera eramateko bi gurasoek osatutako lan talde bat dugu definituta. Lan talde honek, ideia eta gidoia definitzen ditu eta Elkarteari aurkezten dizkio, Elkarteak hilero egiten dituen batzarretako batean. Batzarrak onartuz gero, gidoia sakonago landu, marrazkila-

riarekin harremanetan jarri eta gidoiaren berri ematen diogu. Marrazkilaria bere lana amaitzen duenean, batetik ipuinaren paperezko bertsioa maketatzen hasten gara eta bestetik guraso gehiago inplikatu eta DVD formaturako behar ditugun audio grabaketak egiteari ekiten diogu. Audio grabaketaren ondoren, edizio lana egin eta produkzioara.



Ipuin hauek garatzeko ez dugu laguntza berezirik eskatu. Momentuz elkarteak bere gain hartu ditu garapen honek suposatzen dituen kostuak, bere urteko ohiko gastuetan. Aurrera begira behar-beharrezkoa ikusten dugu proiektu hau gauzatzeko diru laguntzaren bat topatzea.

INFORMAZIO GEHIAGO/ GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO:

www.kuttunolaberria.org
idazkaritza@kuttunolabarria.org



AIPAMEN BEREZIA

“ESKOLA BAT TRANSIZIOAN”

ZURBARANTARRAK GURASO
ELKARTEA
(Zurbaran LHI, Bilbo)

Bilboko Zurbaran Eskola trantsiziozko erakunde bihurtzeko proposamena zabaldu dute Guraso Elkartetik, bere erritmo eta beharrekin, beste herrialde batzuetako erakundeen esperientziak kontutan izanda. Energia erabiltzeko eta bizitzeko modu arrazionalagoak aldarrikatzen ditu "deshazkundera" izenarekin ere ezagutzen den mugimendu honek.

■ Aldaketa klimatiko eta petroleoaren igokada dela eta trantsizioan dauden komunitate eta erakunde desberdinetan ekimen desberdinak aurrera eramaten ari dira.

Gaur egungo gizarte komunitatetatik ingurugiroaren apurketa, gizakion kontsumismoa eta herrialdeen arteko desberdintasunak agerian ditugun errealitateak izanda, beste egiazkotasun baterantz abiatzeko asmoarekin, produkzioa zainduz, energiaren erabilera onuragarriarekin, eta garapen jasagarria bultzatuz,



naturarekin harremanak lotuz taldearen lehenetasuna eta bizitzarekiko abileziak berreskuratuz trantsizioa planteatzen da. Hori dela eta Trantsiziozko Mugimenduak gizarte komunitateetan (auzoetan, herrietan, hirietan, eskoletan..) guztion biziraupena eta ongizatea gehituz ekintza desberdinak antolatzen ditu.

Zurbaran ikastetxea, mende berrian Hezkuntza Publikoak erantzunkizuna duen papera aztertzeko asmoarekin azken urte

hauetan hausnarketa eta aldaketa prozesu batean murgildurik dago. Bide honeetatik jarraituz, gure ikastetxea eskola dinamiko bat da, esperimintatuz aurrera pausuak emanez erakutsi eta ikasi egiten du.

Momentu honetan prozesu desberdinak martxan ditugu: Agenda 21, partaidetza IGEren bitartez eta elkarbitza behatokia.... Denbora pasa ahala IGETik konturatu gara aurrera pausu bat eman behar dela, badakigu eta argi dugu proposamen berriak poztasunez eta seriotasunez

aurrera eramateko ahalmena dugula, azken finean aldaketa prozesua ikastetxearen barrutik kanpokalderantz eraman behar dela pentsatzen dugu.

IGETik Zurbarango ikastetxea trantsiziozko erakunde bat osatzearen proposamena zabaltzen dugu, bere erritmo eta beharrekin, beste herrialde batzuetan sortuta dauden erakundeen esperientziak kontutan izanda. Argi dugu Euskadin proiektu aintzindaria dela.

Laburbilduz adieraztea nahi duguna zera da:

- Eskolatik erabakita dauden baloreekin koherenteagoak izatea eta balore horiek defenditzea (partaidetza eta iraunkortasuna).
- Ekintza zuzenen bitartez martxan ditugun proiektuak aurrera eramatea (eskola ortua, familia eta aisialdia) eta beste berri batzuk txertatzea (energia onuragarria).
- Beste ikastetxe eta erakundeentzat eredu bat sortzea.

2010/11. ikasturtean proiektuaren lehenengo fasea martxan jarri dugu ardatz nagusi bezala bi helburu izanda:

- Ekintza puntualak egitea eskola komunitatera trantsizioa hurbilduz.
- Ahal den neurrian zabaltzea trantsizioaren kontzeptua eta ideia zertan datzan azalduz.

Helburu hauek aurrera eramateko asmoarekin 2001-11 ikasturtean ekintza hauek egiten ari gara:

A- Eskola ortua

Orain dela urte gutxi arte ikasleek ez zuten horrelako instalazioen beharrik, baina gure gizartea aldatzen dioa eta orain biztanleriaren gehiengoa herri eta hirietan bizi da, horrek suposatzen duenarekin, izan ere ikasleek ez daukate harreman

nik nekazal munduarekin. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikasleentzat egin nahi dugu baratza, eta Bigarren Hezkuntzakoei ere eskainiko diegu, betiere curriculumean txertatuz.

Eskola ortuak ez du behar diru inbertzio handirik, eta horrez gain urte gutxitan amortizatuko genuke. Ikastetxeo umeek etxeetatik lurra, konposta, haziak, egurra... baiditzakete.

Ikastetxeo eraikuntza berria egin zenean ortua egiteko goikaldeko zabaltza lekurik egokiena zela konturatu ginen. Urtaroa kontutan izanda hainbat gauza landatu ahal dira: azalorea, letxuga, piperrak, azenarioak, tipulak, menta, toma-teak...

Logistika kontutan izanda, botatako egurra berreskuratuz kaxoi desberdinak egin dira, eta Udaletxeko zerbitzuei eskatu zaie lurra.

B- Familia eta aisialdia programa.

“Aisialdia konpartitzeko ez kontsumitze” izeneko programa honen bitartez aisialdi aktiboa, alternatiboa eta familiako kideak disfrutatzeko momentuak eta espazioak konpartitzea indartzea nahi da. Zurbaran LHlko familiei zuzenduriko programa da eta helburu hauek ditu:

- Aisialdiak familiakide eta ikastetxearen arteko harremanak indartzea.
- Beste harreman mota batzuk sortzea merkantilismoa alde batera utziz.

Proposatutako ekintzak hauek izango lirateke:

- Space Invaders orientazio frogak, Euskal dantzak familiakideentzat, jolas kooperatiboak, Zineforumak, Literatur mahinguruak, txangoak, museoak, erakusketak...

C- Tailerrak eta beste ekintza batzuk.

Elkarkidetasun lan eguna: Elkarkidetasun lan eguna urtean behin IGEak antolatutako eguna da, pasa den ikasturtean hasi zen eta aurten, 2010-2011 ikasturtean, apirilaren 2an izan da.

Egun horretan hezkuntza komunitate osoak margotu, landareak landatu eta eraikuntzak eta instalazioak hobetzeko asmoarekin laguntzen du. Parte hartze aktiboa izaten da nagusi. Umeez, gurasoek, irakasleek eta langileek batera lan egiten dute eta eguna amaitzeko bazkari eta jai bat antolatzen da.

Kulturen arteko jaiak eta aldaketa ez merkantilistak:

Gabonetan azoka txiki bat antolatzen dugu etxeetan soberan ditugun gauzekin eta prezio sinboliko batean saltzen dira. Familia batzuk beraien herrialdeetako janaria eskaintzen digute ere. Azoka horretatik ateratzen den etekinarekin ikasturte amaieran txango bat eta baita ere ikasturteko amaierako jaialdia antolatzen dira.

Mintzalaguna: 2010-11 ikasturtean hizkuntzen erabilera areagotzeko asmoz, "Mintzalagun" tailerrak martxan jarri

ditugu eskola komunitateko partaideek. Maila guztietako gurasoak biltzen gara hilabetean behin hitz egiteko asmoarekin. Ikastetxetik kanpo gelditzen gara, auzoko espazio desberdinak konpartituz, euskara eta ingelesaren erabilera indartuz.

Erreziklatutako arropaz egindako tailerra eta beste tailer batzuk:

2010-2011 ikasturtean erreziklatutako arropa tailerren egindako arroparekin inauterietako mozorroak egin dira. Ikasturtean zehar jakintza desberdinetako elkartrukea tailerrak eskaintzen dira gurasoentzat (argazkilaritza, sukaldaritza...)

Ikastetxeko eta auzoko historia berreskuratzea:

Otsailaren 7an ahozko iturrien tailerra eman zen geletan helburu honekin: "ikastetxeko eta auzoko historia berreskuratzea". Tailer honetan familiako kideei edo auzokideei galdetzeko inkestak prestatzen dituzte ikasleek eta hauen bitartez auzoa nolakoa zen, zertara jolasten zen eta nolako bizitza zuen ikasten dute. Horretaz gain, informazio trukaketa egiten dute gure nagusiekin, eta haien eskutik erreziklatzen, murrizten eta berreskuratzen ikasten dute.

D-Gaztezurbi.

Programa honen bitartez Lehen Hezkuntza eta DBHko ikasleen arteko zubi bat egitea espero da, bi maila hauen artean lotura bat izateko. Ikerketa bat egin ondoren konturatu gara auzoko gazteen artean hutsune bat

dagoela eta ez dutela ez lekurik ezta proposamenik aisialdirako. Hori dela eta, programa honen bitartez DBHko gazteentzat aisialdi denborarako ekintza desberdinak eskainiz ate bat zabaltzen da. Beraientzat espazio bat zabalik izango dute material eta programazio oso interesgarri batekin Bilboko 2. barrutian.



E- Proiektuaren eta transizioaren zabalakundea

Proiektuaren atal garrantzitsu bat hezkuntza komunitatean zabaltzea da, onartua eta bultzatua izan dadin behetik goikalderantz eta onuradunek onartu eta

bultzatu dezaten. Kontzeptu hau oso garrantzitsua da beste proiektu batzuen egitura ez errepikatuzeko.

Orain arte egin dena hauxe izan da:

- 2010eko azaroa: "eskola trantsizioan" lan taldearen sorrera IGEa eta Elkarbizitza behatokiarekin. Hezkuntza komunitateak ardura hartzen duenean desagertu egingo litzateke lan talde hau.
- 2010ko abendutik 2011ko martxoraino, ortu eta aisialdia familian programak antolatzeko bilerak.
- Tailerrak, hitzaldiak eta bideoforumak "eskola trantsizioan" gaiarekin.

Datorren ikasturteari begira ekintza hauek eta batez ere energiaren gaia lantzea nahi da.

INFORMAZIO GEHIAGO/ GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO:

www.zurbaranentransicion.blogspot.com
www.ampazurbaranige.org
apa_zurbaran_ige@yahoo.es




AIPAMEN BEREZIA

“BERRI-BERRIAK” ALDIZKARIA

CERVANTES GURASO ELKARTEA
(Cervantes LHI, Bilbo)

BERRI-BERRIAK eskola aldizkariaren helburu nagusia ikastetxeen eta familien arteko komunikazioa hobetzea da. Horretarako, euskaraz eta gazteleraz eta modu atsegin eta entretenigarrian, eskola orduetan zein eskolatik kanpo gertatzen denaren berri ematen du albisteak, elkarrizketak, anekdotak, komikiak, iruzkinak... baliatuta. Aldizkariak familia guztiarentzako egokia den formatua du, etxeko txikienetatik handienetara. Horrez gain, azken urteotan egindako jardueren memoria grafiko gisa ere balio du, ikasturtean zehar gertatutakoa gogoratu edo kontsultatu nahi duten guztiek erabil dezaten.

Ikastetxearen elkarbizitza proiektuaren baitan, hezkuntza komunitateko kide guztiek (ikasleek, irakasleek eta familiek) adierazteko eta komunikatzeko gune bat izan zezaten eskola aldizkari bat abian jartzeko ideia sortu zen 2006-2007 ikasturtean Ikasleen Guraso Elkarte elkarbizitza batzordearen baitan.



Zergatik aldizkari bat? Erantzuna ageriko da: partekatze.

1. Familiekin hurrek eskolan egiten dutena partekatzeko. Eskolan zein eskolatik kanpo jarduera asko egiten ditugu, eta, hala, hamaika pasadizo sortzen zaizkigu egunerokoan; haatik, hainbeste dira edo hain xumeak dirudite, sarri bizipen horiek ez dituztela eskolako hormak igarotzen. Aldiz, guk guztiek ezagutu behar

dituztela uste dugu, horrela eskolan egiten den lana hobeto baloratzeko aukera izango baitute.

2. Hurrekin beren buruak adierazteko aukera izango duten gune bat partekatzea. Aldizkaria beren istorioak, esperientziak kontatzeko bitartekoa da.

3. Aita-amekin kontatu nahi digutena partekatzea, aldizkaria gurasoei entzuteko zein beren galderak, kexuak, mezuak... jasotzeko gunea baita.

4. Irakasleekin partekatzea, aldizkaria beraien esperientziak, sentimenduak, iritziak eta aholkuak partekatzeko bitartekoa baita.

Guztiok dugu zerbait esateko, eta, partekatzen badugu, komunikazioa, eta, beraz, elkarbizitza, hobea izango da. Horregatik, BERRI-BERRIAK eskola aldizkariaren helburu nagusia ikastetxeen eta familien arteko komunikazioa hobetzea da, eta, horretarako, euskaraz eta gazteleraz eta modu atsegina eta entretenigarrian, eskola orduetan zein eskolatik kanpo gertatzen denaren berri ematen du albisteak, elkarrizketak, anekdotak, komikiak, iruzkinak... baliatuta. Aldizkariak familia guztiarentzako egokia den formatua du, etxeko txikienetatik handienetara. Horrez gain, azken urteotan egindako jardueren memoria grafiko gisa ere balio du, ikasturtean zehar gertatutakoa gogoratu edo kontsultatu nahi duten guztiek erabil dezaten.

GARAPENA

BERRI-BERRIAK aldizkariaren lehen zenbakia 2007ko ekainean argitaratu zen Ikasleen Guraso Elkarte bi amen ekimenari esker; beraiek hartu zuten aldizkaria maketatzeko eta hainbat testu idazteko ardura, eta, Paco Palacios liburutegiko garaiko arduradunaren eta hainbat ikasle eta irakasleren laguntzarekin, lehen zenbakia prestatu zuten. Ordutik aurrera, ekimenak izandako harrera ona lagun, zenbaki gehiago argitaratu dira; hain zuzen ere, sei guztira. Gainera, zazpigarren zenbakia ere bidean da jada.

Lehen zenbakia egiteko, 5. eta 6. mailako ikasleen (A eta D) parte hartzea bultzatu zen. Hala, jangela orduetan kazetaritza talde bat sortu zen ikasleekin, albisteak bila eta idatz zituzten. 2007/08 ikasturtean, beste bi zenbaki gehiago ere argitaratu ziren otsailean eta ekainean; horietan, gainera, informazioa auzo guztira zabaldu zen. Horrez gain, kazetaritza talde bertan behera utzi eta ikasle guztien elkarlana bilatu zen, horretarako gelaz gela parte hartzeko aukera eman zitzaielarik ikasle denei. Bi zenbaki horiek irakasleen eta amen lehen kolaborazioak ere ekarri zituzten, eta aldizkariaren sailak eta formatua bera egonkortzen hasi zen. Hori gutxi balitz, Bilbao Centro merkatarikartaren diru laguntza ere lortu genuen (laguntza hori ez da aurrerantzean errepikatu).

2008/09 ikasturtean beste bi zenbaki argitaratu ziren, lehena otsailean eta biga-

rena irailean. Aldizkaria ekainean beharrezkoan irailean kaleratzeko arrazoia ikasturte amaierako txangoei eta jaiari tartea modu lasaigoan eman ahal izatea izan zen, baita ikasturte berriaren eskolara heldutako ikasle, familia eta irakasleei ongi etorria ematea ere. Bide batez, eskolan jarraitzen zutenek aurreko ikasturte amaiera gogora ekartzeko aukera bikaina ere izan zuten.

2009/2010 ikasturtean, zenbaki bakar bat argitaratzeko aukera izan zen, aldizkaria maketatzen zuten gurasoetako batak ikastetxea utzi baitzuen. Aldiz, eskolak berak emandako laguntza handitu eta hobeto egituratu zen; horren erakusle, informazio eta komunikazio teknologietako irakaslea bera izan zen geletako eta ikastetxeko informazio bildu eta antolatzeaz arduratu zena. Zenbaki bakarra egin zenez, ekainean argitaratu zen.

Uneotan, berriz, ikasturte honetako zenbakia antolatzen ari gara. Hain zuzen ere, maketazioaren ardura duen ama beste ama bati eta informazio eta komunikazio teknologietako irakasleari programa irakasten ari da lana hobeto banatu ahal izateko.

Ekonomikoki, eskolak berak ordaintzen ditu sortutako inpresio gastuen erdia, eta, beste erdia, Ikasleen Guraso Elkarteak, Udalak emandako diru laguntzak baliatuta.

HELBURUAK

1. Hezkuntza komunitateari ikastetxean egiten denaren gaineko benetako informazioa helaraztea.

2. Hezkuntza komunitate guztiarentzako komunikazio eta parte hartze bitarteko baliagarri eta eraginkorra eskaintzea, elkargune gisa funtzionatuko duena.

3. Idatzizko komunikazio esparrua, elebiduna eta plurala, hobetu eta zabaltzea, betiere eskolan elkartzen diren sentsibiltate ezberdinak biltzeko asmoz.

4. Gune multikultural bat sortzea, familiei eta auzoari irekitakoa, betiere eskolan uneotan elkarrekin bizi diren kultura guzti-guztiak islatzea helburu hartuta.

BETETZE MAILA

Parte hartu nahi duten guztiei irekitako egitasmoa izanik, egindako balorazioa positiboa izan da bai irakasleen bai ikasleen bai familien aldetik. Ikastetxeko zuzendaritzak eta Guraso Elkarteak erabateko laguntza eman digute. Esan beharra dago, aldiz, irakasle eta ikasleen parte hartzea igotzen joan bada ere, familia ez dela espero bezain altua izan. Bestalde, eskolako bloga izan arren eta bertan egiten ditugun jarduera guztien berri modu eguneratuan eman arren, proiektu honekin aurrera jarraitzeko beharra ikusten dugu. Izan ere, zuzen-zuzenean komunitate guztira heltzeko aukera ematen digu eta parte hartzeko beste modu bat eskaintzen du.

Aldizkariari esker, ikastetxeko maskota bera ere jaio zen: Txungi Flop. Hain zuzen ere, lehen hezkuntzako ikasleen artean egindako lehiaketa baten bitartez aukeratu genuen maskota. "Gure auzoa" sailean eta bertako "Gora begira" lehiaketari esker auzoa bera ezagutzera emateko aukera ere izan dugu. "Osasuna, kirola eta elikadura" sailak eta bertako Kiroleutsi doktoreak, berriz, ohitura onak hedatzeko aukera eman digute. Elkarbizitza, emakumeen eskubideak, bertsolaritza, bide-hezkuntza, kontsumo arduratsua, teknologia berriak... bezalako gaiak ere jorratu ditugu.



Balorazioa positiboa izanagatik, oraindik ere guztiz beharrezkoa da elkarlanaren garrantzia azpimarratzea, bai barne komunikazioari dagokionez bai kanpora begira ere. Ildo horretan, familiek jokatu

beharreko paperaren gaineko hausnarketa egin nahiko genuke. Izan ere, barrutik kanporako komunikazioa bultzatzeaz gain, kanpotik barrurakoa sustatzeko bitartekoa ere bada aldizkaria eta familiek hori oraindik ere ulertu ez dutela uste dugu; hau da, feedback edo atzeraelikatzea funtsezkoa dela.

ETORKIZUNA

Hezkuntza komunitatea guzti-guztiok osatzen dugula errepikatu behar dugu berriz ere; guztiok dugu zer egin eta guztiok hartu behar dugu parte modu batean edo bestean. Horregatik, ikastetxetik antolatzen ditugun jolas eta jaiak baliatuko ditugu ideia hori zabaltzen jarraitzeko.

Bestalde, gure helburua hirugarren zikloko ikasleek argazkiak eta testuak antolatzen ikastea eta aldizkariaren lehen maketazioa egiteko gai izatea da; ondoren, maketazio lantaldeak amaituko luke lan hori aldizkariari azken formatua emanez. Horrela, ikasleen artean hizkuntzarekin eta teknologia berriekin lotutako gaitasunak garatzea lortu nahi dugu. Hori lortu ahal izateko, ezinbestekoa da ikasleen elkarlana izatea, eskola orduetan egin beharreko zerbait baita. Hori oso zaila

dela jakinik, luzerako helburu bezala hartzen dugu.

“Zergatik aldizkari bat?”

Erantzuna agerikoa da: partekatze!”

“Hirugarren zikloko ikasleek argazkiak eta testuak antolatzen ikastea eta aldizkariaren lehen maketazioa egitea nahi dugu”

INFORMAZIO GEHIAGO/ GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO:

igecervantes@yahoo.es




AIPAMEN BEREZIA

“BLOG BATEN SORTZE-LANAREN EGUNKARIA”

OXINBIRIBIL GURASO ELKARTEA
(Dunboa LHI, Irun)

Guraso Elkartearen bloga sortzearen egunkaria kontatzen du esperientzia honek. Hasierako kezkak, beste blog batzuetan ikasitakoak eta abar jasotzen ditu 16 orrietan zehar. Informazio baliogarria benetan prozesu berean dauden guraso elkar-teentzat.



2001 urtea hasterekin batera, Guraso Elkartearen bloga sortzeari ekin zion Irungo Dunboa eskolako Guraso Elkartek. Horretarako Baikara federazioaren formakuntza arduradunaren laguntza izan zuen.

Beste IGEen web guneak bisitatu eta sarean dagoen materiala aztertuz, martxan hasi ziren oinarriko elementuak zehaztuz: egilea, kudeatzaileak, loturak, iruzkinei erantzuteko epea, hizkuntza eta abar.

Blog elebiduna egiteaz gain, ikastetxean gehien erabiltzen zen atzerriko hizkuntza

atzeritarra erabiltzea nahi zuten ere; horretarako, hizkuntza hori zein zen galdetu zioten zuzendariari. Arabiarra zela jakin zuten.

Poliki poliki martxan jarri eta blog-ei buruzko hainbat gauza ikasi zuten. "Post" bat blogaren erdikaldean argitaratzen den albistea dela, esaterako, eta hauek kronologikoki argitaratzen direla testu, irudi eta bideoekin nahi izan ezker. Iruzkinek hauei erantzuteko aukera dagoela ere ikasi zuten.

Edukiei dagokienez, zerrenda bat osatu zuten lehentasunak zehaztuz betiere or-

DUNBOA BLOG

dena hau mantenduz: ikastetxea eta IGEa, herria, Gipuzkoa, gainontzeko edukiak.

Guzti honetaz gain, blogean zehar izan dituzten arazoak kontatzen dizkigute, eta baita hauek konpontzeko egin dituzten esfortzuak.

Apirilean, azkenik, jarri dute martxan Oxinbiribil Guraso Elkartearen bloga eta aurkezten diguten egunkariari honi esker, besteok ere berdin egin dezakegu.



INFORMAZIO GEHIAGO/ GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO:

www.dunboa.blogspot.com
oxinbiribildunboa@gmail.com



AIPAMEN BEREZIA

“ZUBI TXIKI EGUNA”

ZUBI GURASO ELKARTEA
(Luzaro LHI, Deba)

Pasa den urtean goitik behera aldatu zuen Debako eskolako Guraso Elkarteak bere eguna. Kanpoko ikuskizun bat ekarri ordez, herriko Gaztelekuarekin harremanetan jarri eta bi ekimen berri jarri zituen martxan: “Arrastoari jarraituz Deba ezagutu” izeneko froga eta “Koloretako zubiak” munduko txoko ezberdinetako ohitura eta jolasak ezagutzeko ekimena.

Urtero, kurtsoa bukatzeaz dagoela, Guraso Elkarteak bere eguna ospatzeko ohitura du. Orain arte beti ekarri izan dugu kanpotik animazio talderen bat, eta goiz edo arratsalde euren montajea Debako zumardian ipini, eta euren ikuskizuna martxan jartzen zuten. Gero elkarteak zegokiona ordaintzen zion.

Aspaldian konturatu ginen Debako gazteak ekintza oso polit eta interesgarriak egiten ari zirela herrian, eta 2010eko Zubi Txiki eguna antolatzeko proposamena luzatu genien Gaztelekuko ardura-dunei. Gaztelekua 12 eta 16 urte bitarteko gazteak biltzen diren gunea da. Badakigu gazteek hainbat ekimenerako dirua behar izaten dutela, beraz lehen kanpotik ekarritako ikuskizunei ordaintzen geniena Debako gazteei bideratzea pentsatu genuen.

Hasieran ez genekien gure festa nondik bideratu, eta bai Gaztelekukoek zein guraso elkartekoek apurtxo bat hausnartu ondoren, gaur egun gure artean puripurian dagoen gai bati heltzea pentsatu genuen: KULTURANIZTASUNA. Beraz gure jaiari KOLORETAKO ZUBIAK izenburua jarri genion.

Honi hasiera ematen ari ginela, Debako Natur taldekoek ere hurrekin ekintza batzuk egin nahi zituzten eta gure jaira gehitu ziren. Beraz, egun bererako bi ekimen martxan jarri genituen: **ARRASTOARI JARRAITUZ DEBA EZAGUTU** (Mugikortasun jasagarri bat bultzatuz bizikletara

igo zaitez) eta lehen aipatu dugun **KOLORETAKO ZUBIAK**.



● **ARRASTOARI JARRAITUZ DEBA EZAGUTU:** Zati batzuetan bizikleta erabiliz Debako txoko desberdinetara eramango duten arrastoak jarraitu behar dituzte talde desberdinek. Froga bakoitzeko talde bakoitzari letra edo irudi bat emango zaio gero, Koloretako zubiak ekimenean erabiltzeko. Taldeak adinaren arabera eratuko dira (4-5 pertsonakoak) eta txikienekin guraso bat joan beharko du. Helburua Deban dauden natur baliabideak eta istoriaren zatitxo bat ezagutzea izango da.

● **KOLORETAKO ZUBIAK:** Munduko txoko ezberdinetako ohitura eta jolasak Debako zumardira ekarri ziren.

Kioskoa izan zen abiapuntua. Bertan, mural handi bat egin eta egunean zehar, jolas ezberdinetan lortzen ditugun kolore ezberdinetako “gometsekin” osatzea zen asmoa. Muralaren goialdean, aurtengo Zubi Txiki izango duen “leloa/lema” idatzi zen, goizeko frogatan lortutako leterekin: **KOLORETAKO ZUBIAK**

Muralean, kontinente batetik bestera pasatzeko “zubiak” ere egin ziren. Zumardian dauden bi zelaia aprobetxatuz, kontinente ezberdinetan bilakatzea zen asmoa.

Eguraldia lagun izan ez genuenez, goizez eta arratsalde Debako zumardian burutu behar genuen festa hori, moldatu behar izan zen. Azkenean goizera pasa zen egitarau guztia eta Debako frontoi berrian egitea pentsatu genuen. Beraz, espazio falta zela eta aurretik pentsatuta genituen hainbat jolas baztertu ziren.

Goizean “Arrastoari jarraituz Deba ezagutu” ekimena burutu zen (euririk egin ez zuelako). Haurrak froga desberdinak gaititu ahala letra desberdinak lortzen joan ziren. Froga guztiak burutu ondoren frontoira hurbildu eta talde guztiek ekarritakoa hormairudian jartzen hasi ziren. Pixkanaka gure festako leloa osatzen joan ginen.

Ondoren, eta festari hasiera eman aurretik, mokadutxo bat eskaini genien bertaratu ziren guztiei. Haur eta gurasoak bost kontinentetako jolasak burutu genituen. Baina horretaz gain, Deban bizi diren eta

jatorri atzerritarra duten gurasoak ere gonbidatu genituen gure festan parte hartzera. Gure festan marokoarrak eta erusiarrak diren bina guraso parte hartu zuten, haurren izenak euren lurraldeko grafiaz idatzen aritu ziren, aurretik prestatutako plantilla batzuetan. Koloretako zubiak hormairudia jolas desberdinetan lortutako gometsekin bete genuenean frontoian eskegi genuen eta bukatzeko dantzaldi bat egin genuen festan izandako partaide guztiek: guraso, gazte eta hurrekin.



Guraso, gazte zein hurrek izugarri gozatu genuen ekimen honekin. Denen erantzuna ezinhobea izan zen eta hurrengo ekitaldiak elkarrekin egitea pentsatu dugu hemendik aurrera. Beraz aurtengo Zubi Txiki ere herriko gazteekin burutzea pentsatu dugu.

INFORMAZIO GEHIAGO/ GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO:

zubideba@hotmail.com



ESKE RRIK ASK O!

Ez ditugu ahaztu nahi lehiaketan parte hartu duten Guraso Elkarte hauek ere:

Gallego Gorria LHI (Bilbo)

Lekeitio LHI

La Escontrilla LHI (Trapagaran)

Lamiako LHI (Leioa)

Urdaneta LHI (Ordizia)

Ibaibe LHI (Barakaldo)

Learreta-Markina LHI

Lope de Vega LHI (Basauri)

Zuhaizti LHI (Donostia)

Intxaurrenondoko Hegoa LHI (Donostia)

Ramón Bajo LHI (Gasteiz)

San Martín LHI (Gasteiz)

Lakuabizkarra LHI (Gasteiz)

Zubileta LHI (Getxo)

Legarda LHI (Mungia)

Gorliz LHI

Eskoriatza LHI

Larrabetzu LHI

Alkartasuna Lizeoa BHI (Beasain)

Deusto LHI

DICIÓN 1ªEDICIÓN 1ªEDICIÓN 1ªEDICIÓN 1ªEDICIÓN

BAL
DUE
DEA
ONBAT?

*concurso de
buenas prácticas
de ampa*

ehige
gurasoen elkartea

INTR ODUC CIÓN

El pasado curso cumplimos un antiguo sueño: organizar un concurso de buenas prácticas de AMPAs. Viendo la respuesta, seguro que repetimos.

29 Asociaciones de Madres y Padres han participado en esta primera edición del concurso, y el jurado ha tenido la oportunidad de conocer todo tipo de proyectos. No ha sido fácil realizar la selección, pero basándose en criterios previamente establecidos por las federaciones, se eligieron los tres premios y los cuatro menciones especiales.

El pasado 5 de junio, en el marco de la 20ª edición de la Fiesta de la Escuela Pública Vasca celebrada en Bilbao, se realizó la entrega de premios. Ahora llega el momento de dar a conocer el trabajo que realizan las AMPAs. Lo tienes en tus manos.

Felicidades a las y los ganadores, muchas gracias a todas las AMPAs que han participado y animo a participar en la segunda edición a todas las que no lo hayan hecho ya.

Ana Puente
Presidenta de EHIGE

EDICIÓN: 1ª NOVIEMBRE 2011
EJEMPLARES: 1.500
EDITA: EHIGE
IMPRIME: GRAFINORTE
D.L.: BI-2904-2011
DISEINUA: XABAT AGIRRE
WWW.EHIGE.ORG/PRAKTIKAONAK

SUBVENCIONA:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAIA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

CRITERIOS/ JU RADO

CRITERIOS

- La originalidad del proyecto.
- Iniciativa de las AMPA en el diseño y realización del proyecto.
 - Grado de participación de la AMPA en todo el proceso.
 - Trascendencia de los objetivos perseguidos.
 - Grado de cumplimiento de los objetivos.
 - Grado de coordinación con el centro.
- Participación de otros agentes sociales (instituciones, asociaciones) del barrio.
 - Facilidad de generalización del proyecto a otros centros.
 - Continuidad del proyecto en el propio centro.
 - Presentación de la memoria.
 - Promoción de la igualdad ente mujeres y hombres.
 - Promoción del euskara.
 - Perspectiva multicultural.
 - Perspectiva inclusiva
 - La evaluación.

JURADO

Garbiñe Arrizabalaga, responsable de formación de Baikara

Ana Eizagirre, asesora de BIGE

Juan Carlos Alonso, miembro de la junta directiva de Denon Eskola

Jon López Armendáriz, director del Berritzegune Central

ÍNDICE

PRIMER PREMIO {PÁGINA 1}

AMPA BATERA (IES Kurtzebarri, Aretxabaleta)

“Concurso de ideas de viajes y viaje escolar para todo el alumnado del instituto”

SEGUNDO PREMIO {PÁGINA 9}

AMPA JUAN DELMÁS (CEP Juan Delmás, Bilbao)

“Abusu sarean / Toma un libro”

TERCER PREMIO {PÁGINA 15}

AMPA KUTTUN ZEBA (CEP Olaberria, Olaberria)

“Olaberriko istorioak gure helduen eskutik”

MENCIÓN ESPECIAL {PÁGINA 19}

AMPA ZURBARANTARRAK (CEP Zurbaran, Bilbao)

“Una escuela en transición”

MENCIÓN ESPECIAL {PÁGINA 25}

AMPA ZUBI(CEP Luzaro, Deba)

“Zubi Txiki Eguna”

